

Fermin Irigarai “Larreko”: Euskararen maitale

MARIAM ANTOÑANA*

“Euskararen maitale garela diogunok, egiazki bagine, euskaldun uts baten aitzinean burutsik bear ginuke, aren baitan bizirik dagolakotz guk ain maite diogun mintzoa”.

Larreko

LARREKO, EUSKARAREN MAITALE

Fermin Irigarai “Larreko”(1869-1949)¹ idazle naparrak Euskal Pizkunde garaian egindako lana kementsua izateaz gain, ia salbuespentzat² jo daiteke Nafarroako prentsan argitaraturiko euskal idazkiei so egiten baldin badiegu, ez bait dira ugari gogoeta edo-ta kontakizuna burutzeko ahaleginetan ihardun zuten orduko napar idazleak.

Larrekoren kasuan, Euskal Herria eta euskararen alde jarritako adorea ondo-ondorioa dugu euskaraz eginiko artikuluen maiztasuna³. Iparraldeko goi-na-

* Euskal Hizkuntza eta Literatura Irakaslea.

1. Larrekoren bizia, lana eta garaiari buruzko azalpen zabala, Iñaki CAMINOREN edizioan aurki daiteke: *Pablo Fermin Irigarai “Larreko”: Nafarroatik / Lekukotasuna*, bi ale, Klasikoak, Euskal Editoreen Elkarte, Donostia, 1992. Eta J. A. IRIGARAY-ren edizioan “Xamar”-ren laguntza bereziarekin: *Fermin Irigaray “Larreko”: Gerla urte, gezur urte. Iruñea 1936-40, isiltasunean mintzo*, Pamiela, Iruñea, 1993.

2. Garai hartako aipatu beharreko beste idazle naparra, Enrike Zubiri “Manezaundi” dugu, kopuruari begira idazti gutxiago utzi baldin bazuen ere, prosa gozo eta ederreko sortzailea izan bait zen. Ikus: *Enrike Zubiri “Manezaundi”. Artikuluak*. Edizioaren prestatzailea: Rosa MIREM PAGOLA, Klasikoak, Euskal Editoreen Elkarte, Bilbo, 1990.

3. Erdaraz ere idatzi zuen artikulua asko, beti ere euskararen aldekoak, baina Primo de Riveraren Diktadurapeko urterik latzenetan –24, 25 eta 26 urtetan zehar alegia–. “La Voz de Navarra”-ko “Pro-euskera” sailean, hain zuzen ere.

farreraz idatzi zuen batipat, nahiz Aurizko hizkera hegoaldeko goi-nafarrerari dagokion. Iruritan ere egona zen, euskaldundu garaian. Horrez gero, Baztaineratik ere jaso zuen eragina⁴. Euskararekiko jarreraz, euskara mintzatua goratzen zuela esan behar dugu, behin eta berriz euskaldun hutsak eredutzat hartzea gomendatzen bait zuen. Horrek eragin nabarmena izanen zuen bere idaztanceran⁵.

Kopuruari dagokionez, euskararen ingurukoak dira ugarietak, bere kezkarik nagusienetakoa zein izan zen argi erakusten duelarik: euskara mendi-zokoeetatik atera, edozein jakingairi buruz solas egin eta idazteko balio zuela erakutsi, ahalik eta jende gehien euskaldundu eta euskaraz eskolatzea, hizkuntza zaharra heriotzatik salbu utziz. Xede horri laguntzeko, euskalkiez baliatuz, euskara batua sortzeko premiaz ohartu zen: bakoitzak bere euskalkian, baita besteetan ere, idatzirikoak irakurriz eta mintzatuz, azkenean euskaldunak elkarri aditzeko gauza bihurtuko ziren, beti ere mintzatzeari lehentasuna ematen ziolarik. Horregatik, mendiz haraindiko euskaldunak miresten zituen, beraientzat idatzi eta beren lanak irakurtzeko zaletasuna aspaldiko kontua bait zen.

Behin baino gehiagotan ere, euskal idazleek hartu beharreko antzeko erizpideez aritzen da: ahozko euskara ("arranta", "miiz-mii dabilguna") eta "garbia" ("irakurgaietan darabiltena") bereiztuz, gramatika berberaren arabera idazteko proposamena egiten du⁶.

Maiz, euskal aberria eta euskara enbor bereko adarrak ageri zaizkigu Larrekoren idazkietan, euskararik gabe ezin baita euskal aberririk erdietsi. Urteetan zehar, Larreko Sabino Aranaren jarratzaile zintzo bezala ikusiko dugu.

Erljioari eta emakumeari dagokienez, ideologia kontserbadorekoa azaltzen dela esan dezakegu, beti kristau fededuna izan zelako eta emakumeari, gizartearen, tradizioko jokabidea besterik ez ziolako onetsi.

Beraz, Nafarroako 1936.eko gerra baino lehenago garatu zen giro kultural eta literarioaren berri izateko, Larrekoren ezagupena ezinbestekotzat jo behar dugu. Izan ere, Larreko, Manezaundirekin batera, beste askoren artean, Nafarroako "*Euskararen Adiskideak*" elkarteko bazkidea⁷ izan zen hasiera-hasieratik. Elkartea 1923.ean sortu zen Bilbon, Gernikako Eusko Ikaskuntzako Batzarraren Hizkuntza Arloak hartutako erabakiaren ondorioz, eta aipatu urteko Apirilaren 15ean eratu zen ofizialki. Euskaltzain-

4. Iñaki CAMINO, opus cit.

5. Larrekoren idaztancerari buruz, ikus: Iñaki CAMINOren edizioa, XV-XVI eta gure azterlana, "P. F. Irigarai 'Larreko'-ren obraren azterketa estilistikoa", *Fontes Linguae Vasconum* 58, 1991, 207-226.

6. LARREKO: "Napar euskal idazleri", *La Voz de Navarra*, 1923-IV-21.

7. "La Voz de Navarra"-k zuzendaritza eta bazkideen zerrendak argitaratu zituen. Larreko 1926.eko Martxoaren 6koan agertzen da eta Manezaundi hurrengo egunekoan. Larreko, gainera, lehendakari izendatu zuten, 1932.ean; "Amayur" astekariko "Asteko berriak" sailean agertzen da berria, "Euskeraren adiskide-en urteoroko batzarra" titulupean: "(...) Yoan den asteen berritu zuten buru egiten dutenak. (...) Lendakari, Fermin Irigarai yauna; bigarren lendakari, Inazio Baleztena; idazkari, Ariz-tar Xabier; lagunak, Wenzeslao Goizueta eta Remigio Mujica; Maria Paz Ziganda; Agerretar Yoseba; A. Iruarritzaga; Leandro Olivier; Paul Artxanco; Doroteo Lizarrondo eta A. Intza lagunak", 1932-IV-30.

diak elkarteak antolatzen bere esku hartu zuen, euskararen defentsa, irakaskuntzan, batez ere, xedetzat zuelarik. Iruñeko “La Voz de Navarra” egunkariko Jesus Etayo kazetaria –zuzendaria, lau urte geroago– izendatu zuten elkarteak Iruñean ere antolatzen⁸, baina 1925. urterarte ez zen Nafarroan eratu⁹, napar Eusko Ikaskuntzako bazkide zenbaiten ekimenari esker¹⁰. “Euskararen Adiskideak” nafar elkarteak euskara zaindu eta bultzatzeko kezka izan zuen, alderdikeria politikotik at, eta asmo horretan lan eskerge burutu zuen, euskal ekitaldiak antolatuz, Iruñeko Euskal Eskolei laguntza eskainiz eta, euskararen atzerakada geldiarazi nahian, haur euskaldunei sariak emanez¹¹. Guzti honen berri ematen digu Larrekok artikulua batean baino gehiagotan.

LARREKO-REN ZENBAIT ARTIKULU: NON ETA NOIZ ARGITARATUAK

Gaur egun arte prestaturiko bildumetan, hots, Aingeru Irigarayren (1958), Jose Maria Larrea eta Pedro Diez de Ultzurrunen (1985), eta Iñaki Caminoren (1992) bildumetan¹² agertzen ez direnez, idazle naparraren artikulua zenbait, “Zeruko Argia” aldizkarian (1919-1936), “Amayur”, EAJ alderdiaren astekarian (1931-1936) eta “La Voz de Navarra” egunkarian (1923-1936) argitara emandakoen zerrenda egitea erabaki dugu, izenburuak eta datak zehaztuz, alegia, bere obrari buruzko ahalik eta argibide zehatzenak erdietsi ahal izateko. Dena den, hoietariko bat osorik ekarri dugu hona, “Orai duela berrogeitamar urte. Gure ikastaroko gabon gaba”, hain zuzen, guk zerrendaturiko guztien artean, kontakizuntzat jo daitekeen bakarra bait dugu¹³.

8. Ikus Euskaltzaindiaren zuzendariak Jesús ETAYORI igorritako eskutitza, 1923-IV-14koa, in Euskaltzaindiaren Artxibategia.

9. Ikus LARREKO: “Pro euskera. Euskararen Adiskideak”, in *La Voz de Navarra*. 1925-X-31.

10. Hauexek izan ziren lehenengo buruzagitza osatu zutenak: Jenaro Larratxe, Damaso Intza, Miguel Intxaurre, Miguel Esparza, Gerardo Valcarlos, Jose M^a Huarte eta Domingo Beunza. Ikus: Intza'r DAMASO: “Euskararen Adiskideak”, Artxibo historiko probintziala, karpeta pertsonala, Kaputxinoena, Iruñea (Aita Intzak elkarteari buruz egindako “garbitasun labur bat” da, datarik gabea) eta ESTORNES ZUBIZARRETA, Idoia: “*La Sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko Ikaskuntza a la cultura vasca (1918-1936)*”, Eusko Ikaskuntza, 1983, 180.

11. Ikus “Euskararen Adiskideak” elkarteari buruzko azalpena in Mariam ANTOÑANA: “Enrike Zubiri ‘Manezaundi’. Zenbait artikulua”, *Fontes Linguae Vasconum* 68, 1995.

12. IRIGARAY, Anjel: *Prosistas navarros contemporáneos*. Departamento de cultura de la Diputación de Navarra, Pamplona, 1958. LARREA, José María eta DIEZ DE ULTZURRUN, Pedro: *Nafarroako euskal idazleak (I)*, Pamiela, Iruñea, 1987. Iñaki CAMINO: Opus cit.

13. Testua gaur egungo arau ortografikoei jarraikiz moldatu dugu, Larrekoren hizkerari dagozkion aldaki fonetikoak -bustiduraren edo-ta hasperenketa ezaren adierazgarriak, kasu-errespetatuz. Puntuazioa ere gaurkotu dugu, soberazko komak eta puntu eta komak desagertaraziz. Ezabatuta izateagatik, irakurtzeina suertatu zaiguna parentesi arteko puntu etenen bidez eman dugu.

2.1. Sailkapena

Ondoko gaiak, beti ere ildo nagusiari begiraturaz, aurkitu ditugu Larrekoren idatzietan, eta horren arabera burutu dugu sailkapena:

I. Eritzi artikuluak

- . Euskara
- . Aberria
- . Politika
- . Erlijioa
- . Emakumearen jokabidea (aurreko gairen batekin lotuta)

II. Osasuna

III. Kontakizuna

Zenbaitetan, gai bat edo gehiago nahasten dira artikulua berberan eta, esan bezala, nagusitzen dena izan da aintzat hartu duguna. Emakumeari buruzkoak ere bestelako sail batean bereizteari komenigarria eritzi diogu, hola-ko gehienetan emakumeak gizartean hartu beharko lukeen jokabide moral edo politikoaz aritzen baita.

Euskarari buruzkoan, hala hizkuntza beraren sustapenari eta bultzadari dagozkionak, nola gramatika, euskara literarioaren gaineko gogoetak, kronikak -euskal egunetakoak- eta euskaltzaleei buruzkoak elkartu ditugu, euskara bera baita ardatz nagusia.

LARREKOREN TESTU ZERRENDA

I. Eritzi artikuluak

Euskara

"*Naparrotsa*"¹⁴, La Voz de Navarra, 1923-III-6.

"*Maitale eta maitale*", La Voz de Navarra, 1923-III-8.

"*Ene leen agurra*", La Voz de Navarra, 1923-III-9.

"*Euskeraren maitale*", La Voz de Navarra, 1923-III-10.

"*Euskara maite duenak*", La Voz de Navarra, 1923-III-15.

14. Artikulu hau ez dago ez Iruñeko Udal Artxibategian, ez Nafarroako Artxibategi Nagusian, ezta "Universidad de Navarra" delakoarenean ere. Bai, ordea, Luis M. MENDIZABALEK 1974.ean egindako "La Voz de Navarra, un caso de periodismo vasco" lizentziatura memorian (Universidad de Navarra). "La Voz de Navarra"-n euskaraz argitaraturiko lehenengo artikulua da. Aipatu obran ere, *Larrekori* buruzko azterlan interesgarria aurki daiteke.

- “Maitatzale edo etsai”, La Voz de Navarra, 1923-III-16.
 “Euskal-saila”, La Voz de Navarra, 1923-III-20.
 “Euskar-saila”, La Voz de Navarra, 1923-III-23.
 “Bakotxari berea”, La Voz de Navarra, 1923-III-24.
 “Euskal saila”, La Voz de Navarra, 1923-III-25.
 “Alegiazko maitale”, La Voz de Navarra, 1923-III-28.
 “Euskar saila”, La Voz de Navarra, 1923-IV-13.
 “Irakurle bat-i, itz bat”, La Voz de Navarra, 1923-IV-14.
 “Euskar saila. Biar Etxarrira!”, La Voz de Navarra, 1923-V-20.
 “Napar euskal idazleri”, La Voz de Navarra, 1923-IV-21.
 “Berriz ere napar euskal idazleri”, La Voz de Navarra, 1923-IV-26.
 “Euskar-saila”, La Voz de Navarra, 1923-V-27.
 “Inza-tar Damasori”, La Voz de Navarra, 1923-VIII-29.
 “Aurizko euskar-eguna”, La Voz de Navarra, 1926-VI-27.
 “Xabiartxo”, La Voz de Navarra, 1927-III-22.
 “Pro euskera”, La Voz de Navarra, 1927-III-30.
 “Vascongado, con cencerro”, La Voz de Navarra, 1927-IV-29.
 “Nigartia, ni?”, La Voz de Navarra, 1927-V-8.
 “Aur euskaldunei, erdara irakasteko, nola?”, La Voz de Navarra, 1927-V-19.
 “Pernando Amezketarra”, La Voz de Navarra, 1927-V-31.
 “Sanjulian Olasotar Jokin”, La Voz de Navarra, 1927-VII-12.
 “Eldu den igandean Berroetara”, La Voz de Navarra, 1927-VII-28.
 “Ederki atzemana”, La Voz de Navarra, 1927-IX-10.
 “Euskar san bera, erdaraz ere”, La Voz de Navarra, 1927-XI-16.
 “Euskaldunak, damurik. Gure Apezpiku jauna, jadanik, ez da gurea”, La Voz de Navarra, 1928-I-4.
 “Gai beretik, berriz. Etxegarai jaunari”, La Voz de Navarra, 1928-I-18.
 “German Garmendia jauna”, La Voz de Navarra, 1928-IV-1.
 “Illabete untako bi euskar egunak”, La Voz de Navarra, 1928-IX-16.
 “Euskeraren Adiskideak”, La Voz de Navarra, 1928-X-19.
 “Eldu den igandean Olaguera”, La Voz de Navarra, 1928-X-24.
 “Euskaldun uts bat”, Amayur, 1932-I-23.
 “Gure ama”, Amayur, 1932-III-26.
 “Euzkel eskolako aurrak”, Amayur, 1932-V-28.
 “Euskaraz ongi idazteko, nola?”, La Voz de Navarra, 1933-II-12.
 “Lizarditar Xabier”, Amayur, 1933-III-17.
 “Laborari-itza berriz ere”, La Voz de Navarra, 1933-IV-19.
 “Euskeraren ikasteaz”, La Voz de Navarra, 1933-VI-23.
 “Lafitte eta Léon jaun apezak”, La Voz de Navarra, 1933-IX-5.
 “Leitzako Joseba Imanol idazleari”, La Voz de Navarra, 1933-X-11.
 “Unamunoren azken ateraldia”, La Voz de Navarra, 1933-X-19.
 “Irakurle maite ori, agur”, La Voz de Navarra, 1933-X-27.
 “Euskar-sailaren zuzendari jaunari”, La Voz de Navarra, 1933-XI-23.
 “Gaur ortzeguna, nere aldi”, La Voz de Navarra, 1933-XI-30.
 “Iruñako euskal ikastoletako araudia”, La Voz de Navarra, 1933-XII-21.

- "Baztandarrak izkuntzaz bertzelatzen ari direla? Baztango berrieltzale jaunari",
La Voz de Navarra, 1933-XII-28.
- "Nere biozminaren andia. Leen eta orai ez da berdin", La Voz de Navarra, 1934-I-5.
- "Baztango berrieltzale 'Gorospeldarra' jaunari", La Voz de Navarra, 1934-I-10.
- "Ai, ei, ai eta miletan ai!", La Voz de Navarra, 1934-II-8.
- "Nola egin euskaraz? Dakizun bezala", La Voz de Navarra, 1934-II-15.
- "Ala ere, ni aren alde", La Voz de Navarra, 1934-II-23.
- "Euskaraz ikasten ari direnentzat"¹⁵, La Voz de Navarra, 1934-II-28.
- "Euskara il-urren. La vida del euskera", La Voz de Navarra, 1934-III-16.
- "Ni beti gaiketa. Gogoz aberatsak bagine, bedere!", La Voz de Navarra, 1934-III-22.
- "Euskaraz edo erdaraz", La Voz de Navarra, 1934-IV-5.
- "Agur, ene aldi", La Voz de Navarra, 1934-V-24.
- "Gaur ortzeguna, ene aldi", La Voz de Navarra, 1934-IV-12.
- "Euskaraz ala erdaraz?", La Voz de Navarra, 1934-IV-26.
- "Eritegiko sendazale arrotzak", La Voz de Navarra, 1934-V-3.
- "Gaur, ene aldi", La Voz de Navarra, 1934-V-18.
- "Eztabaiak xuritzen edo naasten", La Voz de Navarra, 1934-VI-5.
- "Saraizuar euskalduneri, agur. Biar, igande, 'Euskararen adiskideak' Sarazaizun (Salazar)", La Voz de Navarra, 1934-VI-23.
- "Euskeraren adiskideak Sarazaizun", La Voz de Navarra, 1934-VI-28.
- "Gogapen itsak. Zergatik ote da?", La Voz de Navarra, 1934-VII-19.
- "Gauden gu eskualdun. Gazteen almanaka", La Voz de Navarra, 1934-VII-27.
- "Malerreka", La Voz de Navarra, 1934-VIII-2.
- "Gaur ene aldi", La Voz de Navarra, 1934-VIII-23.
- "Gaur ene aldi", La Voz de Navarra, 1934-VIII-30.
- "Gaur ene aldi", La Voz de Navarra, 1934-IX-20.
- "Gaur ene aldi: Gu baitara bea", La Voz de Navarra, 1934-X-4.
- "Euskeraren Adiskideak. Gaur goizean, Huartera", La Voz de Navarra, 1935-IX-29.
- "Euskaldun berrieri, itz bat", La Voz de Navarra, 1935-X-15.
- "Gaur, Elizondon. Bertsolariei, agur", La Voz de Navarra, 1936-I-12.
- "Misioak, euskaraz eta erdaraz", La Voz de Navarra, 1936-III-17.
- "Goazen. La Voz-eko zuzendari jaunari", La Voz de Navarra, 1936-IV-5.

Aberria

- "Sanjulian Olasotar Jokin", La Voz de Navarra, 1923-VII-13.
- "Euskalerrria eta aberria", Amayur, 1932-IV-2.
- "Eta, zer egin?", Amayur, 1932-VII-9.
- "Nere baitan", Amayur, 1933-I-27.
- "Gogoeta ongi, eta zergatik?", Amayur, 1933-II-10.

15. Artikulu hau 1934ko ekainaren 16an ere agertuko da, "Euskaldun garbieri, obore. Euskara garbia ikasteko bide bat" titulupean.

- “Jaun txistularieri. Txistua eta euskara”, La Voz de Navarra, 1933-IX-24.
 “Arana Goiritar Sabin”, La Voz de Navarra, 1933-XI-26.
 “Gaur, ene aldi”, La Voz de Navarra, 1933-XII-7.
 “Egun, ene aldi”, La Voz de Navarra, 1934-II-1.
 “Jondoni Loyolakoa eta Jondoni Xabierrekoa, Kantabertarrak”, Amayur, 1934-VIII-10.
 “Monzontar Telespor jauna, nor da”, La Voz de Navarra, 1936-V-17.

Politika

- “Campion jaunaz, itz bat”, Amayur, 1931-XII-5.
 “Gaur, ene aldi”, La Voz de Navarra, 1933-XI-17.
 “Naasmenduka”, La Voz de Navarra, 1933-XII-14.
 “Ereneguneko ene uts egitea”, La Voz de Navarra, 1934-IV-21.
 “Artola jaunari”, La Voz de Navarra, 1934-VIII-16.
 “Mendixuri maiteari, biotzez”, La Voz de Navarra, 1936-II-9.

Erljioa

- “Iruñeko gizonetzkoen urteroko misioa”, La Voz de Navarra, 1923-III-11.
 “Agur, Mikel gurea, gorde, gorde Euskalerria”, La Voz de Navarra, 1923-IV-11.
 “Euskar saila. Besta berri”, La Voz de Navarra, 1923-V-31.
 “Iruñeko Apezpiku jaunaren euskarazko gutuna”, La Voz de Navarra, 1926-XII-28.
 “Iruñeko Apezpiku jaunaren azken “eskutitza”, La Voz de Navarra, 1927-IX-30.
 “Nekaldiaren berri argiena”, La Voz de Navarra, 1928-IV-6.
 “Iruñako euskalduneri, itz bat”, La Voz de Navarra, 1931-III-11.
 “Nere gaztaroan ez nituen asko maite”, Amayur, 1932-II-5.
 “Gogo ariketak, ejerzizioak, euskeraz”, La Voz de Navarra, 1932-III-9.
 “Misioak”, La Voz de Navarra, 1934-III-11.
 “Gaur, ortzegun saildua, Jainkoaren aldi”, La Voz de Navarra, 1934-III-29.
 “Urte berrikari”, La Voz de Navarra, 1936-I-1.
 “Bea uni. Katoliko-ariketan. (Acción Católica)”, La Voz de Navarra, 1936-IV-19.

Emakumearen jokabidea

- “Emakumea leen eta orai”, 1927-IV-2.
 “Emakume abertzalari”, Amayur, 1931-XII-12.
 “Emakumea, aukerale eta aukergai”, Amayur, 1931-XII-18.
 “Orai-aldi untako ‘nor ederragoka’-z”, La Voz de Navarra, 1933-II-25.
 “Euzko-emakumentzat”, La Voz de Navarra, 1933-XI-2.
 “Zuur-itzak eta edertasuna. Eusko-neskatillentzat”, La Voz de Navarra, 1933-XI-9.
 “Miss Nabarra. Zer pena gure neskatxentzat!”, La Voz de Navarra, 1934-III-16.

II. Osasuna

"Grippe gaitzatik begiratzeko, zerbeit", La Voz de Navarra, 1923-IV-1.

"Osasungarrizko zerbeit", Zeruko Argia, 1925-V.

"Osasungarrizko zerbeit. Eskuak", Zeruko Argia, 1925-VI.

"Osasungarrizko zerbeit. Uliak", Zeruko Argia, 1925-VII.

"Ikusgarria?", Zeruko Argia, 1926-II.

"Osasungarrizko zerbeit", Zeruko Argia, 1926-VI.

"Apendizitis ori, zer ote da?", Zeruko Argia, 1926-VII.

"Osasuna", Zeruko Argia, 1926-XII.

"Osasuna. Jarraipena", Zeruko Argia, 1927-I, V, VIII.

III. Kontakizuna

"Orai duela berrogeitamar urte. Gure ikastaroko Gabon gaba"

Ez dakit, baño, nik uste, orai duela berrogeita amar urte, elurketa¹⁶ andiagoak egiten zituela.

"Instituto" delako ikastetxean bigarren urteko ikastaroa egiten ari ginelarik, eguberri bezperako egunean, oporraldien esku edo baimena izan ginuelarik, gu, bi anaiak, etxerat-etxerat asi ginen.

Orduan etzen auto delakorik; zalburdiz bear ginuen eta Iruñatik gure sorterrira eltzeko 55 Kiliometroko tregu¹⁷ luzea dago.

Bide ortarik azken erena edo 19 kilometro mendiz da eta malda zuta delako, zalburdi astiro-astiro ibili bear, elurra ez denean, malda garaitzeko bi ordu bear.

Iruñatik eguerdi ondoan atera ginen euria ari zuelarik, baño gu atseginez beterik, bozik, etxera ginoazilakoz¹⁸.

A! orduko etxera juateko gure nai bizi-bizia!

Ezin laketu¹⁹ ginuen etxetik urrun; gure sorterrira mendi(...) eta gora gora dagon erriska bat (...)agatik, beste guztien artean ederrena zitzaigun eta zaigu.

Orgatik, jai buruetan, Eguberri eta Bazkoz, etxeratzeko gure tirria²⁰ gaindituz, etxekeeri ez ginioten²¹ bakerik ematen gurasoen baimena erdietsi artio. Ura gure arintasuna etxerako bidea artu bear ginuelarik!

Zalburdian sartzeko garaia baño leen, eztabaiak sortu zitzeien jua aalko zen gure erriraño. Gu, beldurrez, gidariak esanen ote zuen etzaitekela itz eman, uste ortan ararañoako bidazlerik ezin onetsi. Baño, Iruñan etzuen egun artan eurik egin eta mendian elurra? ginion guk.

Alakorik-ala, zalburdian sartu ginen besteekin batio eta bi ordu t'erdiz jua giñen bide erdian dagon erri kozkor bateraño.

16. *Elurketa*: elurte.

17. *Tregu*: bide.

18. *Ginoazilakoz*: gindoazelako.

19. *Laketu*: atsegin.

20. *Tirria*: nahi haundia.

21. *Ginioten*: genien.

An gelditu ziren gure bidazlekideak²² eta ilundu zitzaigun, erranera²³ den bezala “abenduko eguna, argitu orduko iluna”. Zalburdiz aldatu giñen bi anaiak tipiago batera; eta arri arri, bospasei orduko bidean, baldin elurrek bidea trabatzen ezpazigun.

Negu arratsa neke da bidean, eta otz delarik, bi aldiz; zazpitako eldu ginen bideko azken egoitzara edo bentara; an berotu giñen eta oñak sutara bea iduki ginituen apur bat eta berriz zalburdira, maldari petikora²⁴ asteko.

Elurra bazen; ilun-zuria kanpoan eta ilun beltza barnean.

Asi ginen eta ixil-ixila ginoazin beti kezka berarekin; etxera elduko ote ginen; lurra ere esi zuen eta geroago eta geiago ari zuela nabari zen, zaldien eta erroten²⁵ asotsa²⁶ ixiltzenago zualako.

Zein ilun den, gau ilun batean, zalburdiko zaldien kuxkuela soñua elurrak itzaltzen duenean!

Eta orañik orduan asten aldapa gora, eta bidean bizitegirik ez, aterberik ez; gain gañeko gure erriraño!

Gidariak zaldia geldiazten ditu, jausten da, “zer ote da?” gure artean; zaldi baten ferra batean elur kosko²⁷ andia bildu zuelako, ezin ibili eta aal zuen bezala, ekendu²⁸ zion.

Orduan, gidariak erraten digu: ez dakit nola ibiliko garen, emen ala denean, gora nola egonen da? Baldin egunak elurrik egiñ ezpadu nonbait or; baño den gutiena bota badu...

Orduko gure etxeratzeko nai biziak ezinezko gogoeteri lekurik ematera etzigun uzten, aurak izaki!

Elurra ari zuen: zaldien kuzkuela-soñua il zen, orduko baraxe-baraxe²⁹ ala ere, baginoazin.

Gidaria ixilik, zaldieri otsik ez ematen, lo iduri!

Gu aldiz, barnean ern (...) lik eta ozturik, estaltzeko berogarri gutiegi ginuelakoz oñak ormatuak³⁰; zango bat igitzera³¹ ausartzen ez eta elkarri itz bat erran gabe bidean.

Biek bat ginaukan gogoan ta, beldurra: ezin eldu, bidean gelditu bearrak ote ginauden. Eta bidenabar orduan, ez nere anai zaarrenak eta ez nik ere, ez ginuen euskar-itzik egiten; ezpaiginakien.

Aldika, gogoia etxeko sukaldean ginuen, gaboneko ango su ederraz oroi-turik: sugaiako pilan zen onbor³² lodiena gau artako berexten zuten, su bazterreko; gorigori zenean, urrunera berotzen zuen.

22. *Bidazlekideak*: bidaiakideak.

23. *Erranera*: esaera.

24. *Petikora*: behetik gora.

25. *Erroten*: gurpilen.

26. *Asotsa*: hotsa.

27. *Kosko*: zokil, mokor.

28. *Ekendu*: kendu.

29. *Baraxe-baraxe*: poliki-poliki, astiro-astiro.

30. *Ormatuak*: izoztuak.

31. *Igitzera*: mugitzera.

32. *Onbor*: enbor.

Ez ginakien zer ordu zen; orduko gazteek ez ginuen ordularik³³ erabiltzen. Gidariak bazuen ordua, baño ez ginen galdegitera ausartzen, beldurrez, berandu bazen, asiko zitzaigula atzera bear ginuela.

Baño, uste ginuen amarrak izanen zirela eta orañik tregu (bide) latzena egiteko.

Gure artean ginion: gaberdiko mezaren amarretako ezkil-deia jo bide dute eta gu orañik urrun, gure ondoko bi anai zaarrenak, astekari meza laguntzale zirelako, an ibiliko ziren etxetik eliz-dorrera eta emendik etxeko sukaldera.

Poliki poliki zeruaren otsa (ez ote da otsa erdarazko "horizonte"?) zabalago uste zitzaigun eta argiago: unek erran nai du gorenera eltzeko urbil ginaudela.

Baño elurra gero ta geiago, zaldieri ferretan koskoak egiten eta ezin urrats andirik egin.

Amekak: gaberdiko mezaren bigarren ezkil-deia jadanik joa eta gu orañik San Polen (Erroibar ta Artzibar arteko mendigorenatarik).

Astiro-astiro, baño beti aitzinatuz gure gogoak arintzen asi ziren orduko, maldaren zati latzena iragana ginuelarik. Gañeko zelaian aldiz, elur geiago eta ezin zaluiago³⁴ ibili.

Eztakit, baño ala ere, abereak arinduz zoazila iduri zuen; gamellako usañaz oroiturik edo.

Poliki poliki errira urbiltzen, otzik sumatzen ez ginuela; baño gauerdi zen, gure gaberdiko meza!

Errian sartzen ginen, gure pozaren andia: zalburdia geltokian gelditurik, iñor ez an; zutik zaudenak elizera juanak; bereala aal ginuen lasterrenik etxeratu ginen eta sukaldera sumindurik egonik ere sartu ginelarik, an bakarrik gure ama maitea; besteak, oeratuak eta gaberdiko mezan.

Ura gure pozaren andia etxean sartu ginelarik eta sukaldean ama ikustearekin!

Gau artaz oroitzen naizen aldiro biotza betetzen zait eta nigarra eldu zait, ama bizirik ikustearekin.

LABURPENA

Gaur egun arte argitaraturiko bildumetan, Larrekoren artikulua anitz jaso dira. Dena den, haietan ez dira berak idatziriko guztiak azaltzen eta horregatik, osagarri bezala, Nafarroako prentsan agerturikoen berri ematea erabaki dugu, Larrekok euskararen alde egindako lan eskergaren ahalik eta beñri zehatzena eskeintzeko asmoz.

RESUMEN

En las colecciones publicadas hasta la fecha se han recopilado numerosos artículos de Larreko. Sin embargo, en ellas no aparecen recogidos todos los que publicó. Por ello, y

33. *Ordularik*: erlojurik.

34. *Zaluiago*: arinago.

como complemento, hemos decidido hacer una relación de los que aparecieron en la prensa de Navarra, a fin de ofrecer un conocimiento lo más preciso posible del enorme trabajo desempeñado por Larreko a favor de la lengua vasca.

RÉSUMÉ

De nombreux articles de Larreko ont été recueillis dans les collections éditées jusqu'à l'heure. Toutefois, on n'y trouve pas tous ceux qu'il a publiés. Afin de corriger cette lacune, nous avons décidé d'établir une relation de tous les articles parus dans la presse de Navarre, pour mieux faire connaître et préciser l'ampleur du travail réalisé par Larreko au profit de la langue Basque.

SUMMARY

Numerous articles by Larreko have been gathered in the compilations so far published. However, not all his published articles have been collected. That's why, and as an accomplishment, we set ourselves the task of recording all his articles published in the Navarrese press, so as to offer a revision as precise as possible of the huge task performed by Larreko in favour of the Basque language.

